

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

384/2022 Foru Agindua, uztailaren 21ekoa. Honen bidez, sarrera- eta ondare-maila baxua duten pertsona fisikoentzako laguntza eskatzeko prozedura arautzen da; laguntza hori ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuan ezartzen da, zeinaren bidez neurriak hartu eta luzatzen baitira Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei eta zaurgarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei erantzuteko eta La Palmako uhartearen suspertze ekonomikoa eta soziala bultzatzeko.

Ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuak (haren bidez neurriak hartu eta luzatzen baitira Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei eta zaurgarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei erantzuteko eta La Palmako uhartearen suspertze ekonomikoa eta soziala bultzatzeko) sarrera- eta ondare-maila baxua duten pertsona fisikoentzako zuzeneko laguntza-lerro bat ezarri du, pertsona horiek direla soldatapekoak, direla langile autonomoak edo langabetuak. Ordainketa bakarreko 200 euroko laguntzaren bidez, arindu nahi da Ukraina inbaditzaileen ondorioz sortu den krisi energetikoak prezioen gainean izan duen ondorio kaltegarria, zeinak beste prestazio sozial batzuek estaltzen ez dituzten kalteberatasun ekonomikoko egoeretan eragina baitu; egoera hauei buruz ari gara, besteak beste: kotizaziopeko pentsioak –zeinen iguera bermatzen baita inflazioarekin bat etorri–, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak, edo erretiro- eta baliaezintasun-pentsio kotizazio gabekoak, kontuan hartuta azken bi kasu horiek aparteko iguera jaso dutela, aipatutako Errege Lege Dekretuan aurreikusitako moduan. Laguntza hau jasotzeko, baterako diru-sarreraren eta ondareen gehieneko kopuru batzuk ezartzen dira, etxean bizi diren pertsonen kopuruaren arabera, laguntzaren onuradunen kolektiboak premia- eta progresibitate-printzipioei erantzuteko.

Aipatutako errege lege-dekretu horren 31. artikulua xedatzen du euskal administrazioek eskumena dutela laguntza hori izapidetzeko, onuradunek bizitokia haien lurraldea duten kasuan.

Beraz, foru-agindu honen bidez, aurreko paragrafoan ezarritako laguntza kudeatzeko prozedura arautzen da.

Adierazi behar da laguntza ez dela enbargatuko edo/eta konpentsatuko zerga-zorrek azkentzeko bide gisa.

## XEDATZEN DUT

## 1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

Foru-agindu honen helburua da 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuaren 31. artikuluan ezarritako laguntza eskatzeko prozedura arautzea; errege lege-dekretu horren bidez, neurriak hartu eta luzatzen dira Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei eta zaurgarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 384/2022, de 21 de julio por la que se regula el procedimiento para solicitar la ayuda a personas físicas de bajo nivel de ingresos y patrimonio prevista en el Real Decreto-ley 11/2022, de 25 de junio, por el que se adoptan y se prorrogan determinadas medidas para responder a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, para hacer frente a situaciones de vulnerabilidad social y económica, y para la recuperación económica y social de la isla de La Palma.

Mediante el Real Decreto-ley 11/2022, de 25 de junio, por el que se adoptan y se prorrogan determinadas medidas para responder a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, para hacer frente a situaciones de vulnerabilidad social y económica, y para la recuperación económica y social de la isla de La Palma, se introduce una línea directa de ayuda a personas físicas de bajo nivel de ingresos y patrimonio, que sean asalariadas, autónomas o desempleadas. Esta ayuda, de 200 euros de cuantía en pago único, tiene por objeto paliar el efecto perjudicial en los precios ocasionado por la crisis energética derivada de la invasión de Ucrania en situaciones de vulnerabilidad económica, no cubiertas por otras prestaciones de carácter social, como es el caso de las pensiones contributivas, cuyo incremento se garantiza en línea con la inflación; del ingreso mínimo vital, o de las pensiones de jubilación e invalidez no contributivas, teniendo en cuenta que estos dos últimos casos, ya se benefician de un incremento extraordinario en los términos previstos en el Real Decreto-ley mencionado. Para la percepción de esta ayuda, se establecen así mismo unos máximos de ingresos y patrimonios conjuntos en función de la convivencia en el domicilio, con el objetivo de que el colectivo de personas beneficiarias de la ayuda responda a los principios de necesidad y progresividad.

El artículo 31 del citado Real decreto-ley, determina a las administraciones vascas como competentes para la tramitación de la precitada ayuda cuando las personas beneficiarias se encuentran domiciliadas en su territorio.

En consecuencia, mediante la presente Orden Foral, se regula el procedimiento para solicitar la ayuda prevista en los párrafos anteriores.

Cabe señalar que la ayuda no será objeto de embargo y/o compensación como medio de extinción de las deudas tributarias.

## DISPONGO

## Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.

El objeto de la presente Orden Foral es regular el procedimiento para solicitar la ayuda prevista en el artículo 31 del Real Decreto-ley 11/2022, de 25 de junio, por el que se adoptan y se prorrogan determinadas medidas para responder a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, para

erantzuteko eta La Palmako uhartearen suspertze ekonomikoa eta soziala bultzatzeko.

## 2. artikulua. Onuradunak.

Ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretua (haren bidez, neurriak hartu eta luzatzen dira Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoa eta sozialei eta zaugarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei erantzuteko eta La Palmako uhartearen suspertze ekonomikoa eta soziala bultzatzeko) indarrean jartzean bizilekua Gipuzkoako Lurralde Historikoan duten eta errege lege-dekretu horren 31. artikuluan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsona fisikoak izango dira aurreko artikuluan adierazitako laguntzaren onuradun.

## 3. artikulua. Eskaera eta laguntza ordaintzea.

1. Foru Agindu honen 1. artikuluan adierazitako laguntza-erreserba onuradunak edo haren zerga ordezkariak aurkeztuko du, gehienez 2022ko irailaren 30ean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan horretarako eskura jarriko den formularioa betez eta bidaliz.

2. Gipuzkoako Foru Ogasunak ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuan eskatutako betekizunak egiaztatu ondoren ordainduko du laguntza.

Laguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, eta transferentzia jasotzean jakinarazitzat joko da emate-erabakia.

Formularioa aurkezteko epea amaitzen denetik hiru hilabete igaro badira eta laguntza ordaindu ez bada, eskaera ezetsitzat jo ahal izango da.

Presuntziozko ezespeneraren aurka berraztertze-errekurtsoa edo erreklamazio ekonomikoa-administratiboa jar daiteke, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauan jasotako baldintzetan.

### Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru-agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2022ko uztailaren 21a.—Ogasuna eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (4965)

hacer frente a situaciones de vulnerabilidad social y económica, y para la recuperación económica y social de la isla de La Palma.

## Artículo 2. Personas beneficiarias.

Serán beneficiarias de la ayuda prevista en el artículo anterior las personas físicas que en la fecha de entrada de vigor del Real Decreto-ley 11/2022, de 25 de junio, por el que se adoptan y se prorrogan determinadas medidas para responder a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, para hacer frente a situaciones de vulnerabilidad social y económica, y para la recuperación económica y social de la isla de La Palma, tengan domicilio en el Territorio Histórico de Gipuzkoa y cumplan los requisitos previstos en el artículo 31 del citado real decreto-ley.

## Artículo 3. Solicitud y pago de la ayuda.

1. La solicitud de la ayuda prevista en el artículo 1 de esta Orden Foral anterior se presentará por la persona beneficiaria o por su representante tributario mediante la cumplimentación y envío del formulario que a estos efectos se pondrá a su disposición en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa hasta el 30 de septiembre de 2022.

2. La Hacienda Foral de Gipuzkoa procederá al pago de la ayuda, previa comprobación de los requisitos exigidos por el Real Decreto-ley 11/2022, de 25 de junio.

La ayuda se abonará mediante transferencia bancaria, entendiéndose notificado el acuerdo de concesión por la recepción de la transferencia.

Transcurrido el plazo de tres meses, contado desde el fin del plazo para la presentación de la presentación del formulario, sin haberse efectuado el pago, la solicitud podrá entenderse desestimada.

Contra esta desestimación presunta se podrá interponer recurso de reposición y reclamación económico-administrativa, en los términos previstos en la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

### Disposición final única. Entrada en vigor.

La presente Orden Foral entrará el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y producirá efectos desde dicha fecha.

San Sebastián, a 21 de julio de 2022.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. (4965)